

## 2021eko hirugarren hiruhilekoan esportazioen prezioak % 3,4 igo ziren aurreko hiruhilekoaren aldean

### *Inportazioen prezioak, halaber, % 8,2 igo ziren*

2021eko hirugarren hiruhilekoan, esportazioen prezioak % 3,4 igo dira 2021eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, Eustatek landutako datuen arabera. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuz gero, % 9,4ko gorakada izan da.

Inportazioen prezioek joera berari jarraitzen diote: % 8,2 igo dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 25,4 hazi dira 2020ko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

**Esportazioen** barruan, produktu energetikoen prezioak % 10,7 igo ziren 2021eko bigarren hiruhilekoaren aldean, eta ez-energetikoenak % 3,2. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, ondasun energetikoen prezioak % 29,0 igo dira, eta ez-energetikoenak % 8,9.

**Inportazioen** kasuan, produktu energetikoen prezio-indizea % 18,7 hazi zen hiruhileko arteko tasan, eta ez-energetikoenak % 5,5. Urte arteko alderaketan, prezio energetikoak nabarmen igo dira, % 73,2, eta ez-energetikoak % 16,1.

### **Euskal AEko kanpo-merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, helburu ekonomikoaren arabera (%). III/2021**

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
<b>Indize orokorra</b>	<b>3,4</b>	<b>9,4</b>	<b>8,2</b>	<b>25,4</b>
Produktu energetikoak	10,7	29,0	18,7	73,2
Produktu ez-energetikoak	3,2	8,9	5,5	16,1
Kontsumo-ondasunak	2,5	2,5	2,9	6,5
Kapital-ondasunak	1,2	7,7	4,5	0,8
Bitarteko-ondasunak	4,5	12,0	8,8	29,9

#### **Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI**

Ondasunen **helburu ekonomikoaren** araberako sailkapenari jarraikiz, nabarmentzekoa da, aurreko hiruhilekoaren aldean, Bitarteko Ondasunen (% 4,5), Kontsumo Ondasunen (% 2,5) eta Kapital Ondasunen (% 1,2) esportazioen prezioek izan duten igoera. Urte arteko terminoetan, Bitarteko Ondasunen (% 12,0), Kapital Ondasunen (% 7,7) eta Kontsumo Ondasunen (% 2,5) prezioek ere gora egin dute.

Azterketa inportazioetara bideratuz gero, ikusten da ezen Bitarteko Ondasunen prezioak igo direla hala hiruhileko artean (% 8,8) nola urte artean (% 29,9). Gauza bera gertatu da beste bi ondasun-motetan ere; hala, Kontsumo Ondasunak % 2,9 igo dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 6,5 aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Kapital Ondasunei dagokienez, hiruhileko artean % 4,5 hazi dira, baina hazkundera apalagoa izan da aurreko urtearekin alderatuta, % 0,8ko igoera baino ez baitute izan.

Esportazioen xede diren **eremu ekonomikoak** kontuan hartuta, 2021eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, prezioek gora egin zuten eremu guztietan. EB-28an % 3,1 hazi dira, % 3,2 ELGAN, % 3,6 Euro eremuan eta % 4,5 Munduko gainerakoan. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, joera errepikatu egin da: prezioek gora egin dute eremu ekonomiko guztietan, eta nabarmentzekoak dira Euro eremua (% 11,5) eta, bereziki, Munduko gainerakoa (% 11,9). Gainerako eremuetan ere tasa positiboak daude: EB-28an % 10,2ko hazkunde-tasa dago, eta ELGAN % 8,8koa.


### **Euskal AEko kanpo-merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, arlo ekonomikoen arabera (%). III/2021**

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
<b>Indize orokorra</b>	<b>3,4</b>	<b>9,4</b>	<b>8,2</b>	<b>25,4</b>
Euro eremua	3,6	11,5	2,0	9,6
EB-28	3,1	10,2	3,2	10,3
ELGE	3,2	8,8	7,3	21,8
Munduko gainerakoa	4,5	11,9	9,9	34,6

**Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI**

Inportazioetan prezioak igo dira aurreko hiruhilekoaren aldean eremu geografiko guztietan, nabarmen ELGAN (% 7,3) eta, bereziki, Munduko gainerakoan (% 9,9). Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta ere hazkunde-tasa positiboak erregistratu dira eremu ekonomiko guztietan. Nabarmentzekoak dira ELGA (% 21,8) eta Munduko gainerakoa (% 34,6), eremu batzuk zeinetan, hain zuzen, osagai “energetikoaren” eragin handia baitago.

## Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

### Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística  
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz  
 Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62